

BASERRIA

BALIO PROPOSAMENA

Konpondu nahi genituzkeen arazoak, honakoak dira:

- Bezeroen denbora aurrezte
- Merkatuan dauden kimikoak ez ditugu erabiltzen gure produktuetan, beraz osasun arazoak ez dira gure arazoren bat.
- Garraiabide tradizionalak isurtzen dituzten gasak gehiegizkoak direnez, guk auto elektrikoaren erabilera bermatuko dugu, gure eskaintzak garraiabide elektrikoak erabiliz.
- Guk harreman estua eskaintzen dugu eroslearekin, harremana erosketa eta salmenta hutsa izan ez dadin. Horrela, hain ohikoa den arazoa konponduko dugu, erosleak ez baitaki zer jaten duen, izan ere, gardentasun osoa dugu eroslearekin.

Zer eskainiko du gure enpresak?

- Kalitateko produktuak eskainiko ditugu, bertokoak diren elikagaiak erabiltzen.
- Gure produktuek KMO zigilua izango dute, kontsumitzaileak kontura dadin zein den kontsumituko dituzten elikagaien jatorria.
- Lehen sektoreko langileen esplotazioa oso presente dago, supermerkatu eta dendek diru gutxi eskaintzen dizkiote nekazariei eta abeltzainei. Guk, berriz, pertsona guztientzat onura bilatzeko ideiarekin lan egiten dugu.
- Elikagaiak saltzeaz aparte, ezagutzak diruaren truke trukatuko ditugu. Baserriko diru-sarrerak ez dira beti produktuen salmentatik etorri behar, nekazari gisa zure ezagutza ere erabil dezakezu dirua irabazteko. Nekazaritza-titulua ikasten ari diren **personentzako tailerrak antolatu ditzakezu edo zure baserrian eguneroko bizitzan gertatzen diren prosesuei buruzko hitzaldiak eman** ditzakezu ikastetxeetan edota zure baserrian.
- Horrez gain, formakuntza eta ikaskuntza eskolekin kontaktuan mantenduko gara, izan ere, praktikan dauden ikasleak aukera ezin hobea izango dute gurekin lan egiteko (dohainik) eta horrela bere ezagutzak garatzeko eta praktikan jartzeko.
- Gure baserriko produktuak eta ekoizkinak kalitatea onekoak izango dira, era ekologiko eta natural batean hasi eta hesiko direlako. Baina, zerk egiten du produktu bat ekologikoa izatea? Esan dezakegu jaki bat naturala dela hasierako ekoizkina aldaketa sintetiko edo kimikorik jasaten ez duenean. Horregatik, gure landareen eta animalien ongizate bermatuko dugu momentu oro, bizirauteko eta ekoizteko beharrezkoak diren baldintzak eta zainketak ezarriz. Gainera, elikagai ekologiko batek ziurtatzen digu ingurune naturala errespetatuz eta bere ezaugarri guztiak

mantenduz ekoitzi dela; beraz, tokikoak, freskoa, oso osasungarriak dira eta zaporez beteta daude, supermerkatukoekin alderatuta.

- Gure produktuak denboraldiko fruituak eta barazkiak izango dira batez ere, baina baita oiloen arraultzak edukiko ditugu salgai. Gure animalien elikadura era askotarikoa eta naturala izango da, arraultza zaporedunak eta osasuntsuagoak ekoiztuz. Gainera, gure oiloen simaurra eta lumaraino ere salduko dugu, beste diru-iturri bezala, hau baratzaren lurra emankorragoa bihurtzeko balio egingo du.
- Bukatzeko, naturarako kaltegarriak ez diren produktuak erabiltzen ez ditugunez, guri jakiak erostean, kutsadura saihestu, biodibertsitatea bultzatu eta landa-garapenari laguntzen duzu.

